



PRENTSA OHARRA

BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du, 1992ko urtealdian gauzatu zuen azterlanean azaleratu ziren huts larrienen aldizkako jarraipena egitearren eta hartara, horien egungo egoera islatu ahal izateko.

Txosten honetan fiskalizatu dugun aldiak 1997tik 2001era arteko urtealdiak besarkatzen ditu legezkotasuna bete izana egiaztatzeari dagokionez eta 2001eko urtealdia, Kontu Orokorrak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekiko duen bateratasunari dagokionez.

Epaitegiak ondorentzen du Partzuergoak hutsak erakutsi dituela duen egoera juridikoari dagokionez, ekonomia-finantza jarduera arautzen duen arautegia betetzeari dagokionez, eta ordezkotza eta kontrol maila egokia izateari dagokionez. Iritzi hau hainbat legehausteren ondorio da; hona hemen aipagarrienak:

- Estatutuak aldatzeko prozesuan sortutako ziurgabetasun juridikoa, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak 2001eko apirilaren 2ko Epaian zalantzan jarri izatearen ondorioz, partzuergoan bildutako udaletako baten Osokoak estatutuak egokitzeko hartutako erabakia baliogabetzen baitu.
- Aldi baterako lan kontratupeko langileak kontratatzeko prozesuek ez dute berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatzen sektore publikoan enplegurako sarbidean.
- Partzuergoak Argentina eta Uruguayan gauzatu dituen jarduerak ez dituzte lehiaketa publikoetan partaidetza erabakiak hartzeko derrigorrezko diren txosten juridiko eta ekonomikoak. Orobat, Partzuergoaren aurrekontuek ez dute inongo diru-izendapenik barne hartu sozietate kontzesionarioetan 3.470 milioi pezetako parte hartzeari aurre egiteko; halaber, finantzaketa eskuratu eta eragiketa horien finantza arriskua babesteko 3.735 milioi pezetan izenpetutako Partaidetza Kontuen kontratuak ez ditu Partzuergoaren Batzordeak baimendu. Honez gainera, Epaitegiak adierazi du ikuspuntu formala abiaburu hartuta, Partzuergoa lehian aritzeko ezgaitzen zuten arestiko legehausteak alde batera, ikuspuntu materialetik Partzuergoa berezko esparruan soilik aritu daitekeela, bere Estatutuen 6. artikuluan zehaztua dagoena eta berau osatzen duten udalerrien interes orokor, berezko eta berariazkoen mesedetan.
- 3.040/1980 Erret Dekretuak baimendutako hornidura tarifaren gaineko %100eko gainkargua eta Saneamendu Plan Integrala egiteari lotua, bertan jaso gabeko gastuak finantzatzeko erabili da, 19.223 milioi pezetako zenbatekoan, Toki Entitateen Aurrekontuzko Foru Arauak agintzen duena urratuz.
- 2002ko urteaz geroztik Udal Sareak, SAk saneamendu tasaren gainean BEZ eragiten du eta hori bidegabekoa da, ez baitzaio Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 7.8 artikulua agindutakoari egokitzen, baltzu hau besteren kontuko tasaren dirubiltzaile huts baizik ez baita eta Partzuergoa bera baita zerbitzu emale materiala.

25/03/a

- Partzuergoak Udalekin izenpetutako hitzarmenei dagokienez, udal instalakuntza eta ur-sareak ustiatu, mantendu eta matxurak kudeatzeko, horren exekuzioa Udal Sareak, SAren eskuko da, hitzarmen horietan jaso bezala. Epaitegiak uste du horien helburua Administrazio Publikoen Kontratuen Legean jasotako bat denez gero, Kontratazioarako Zuzentarauetan eta Lege horretan aurreikusitako manuak ezarri behar ziratekeela.

Partzuergoaren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du Kontu Orokorrak egoki erakusten duela 2001eko urtealdiaren jardura ekonomikoa, ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza eta urtealdi horri dagozkion eragiketen emaitzak, hainbat salbuespen eta zalantza egoera alde batera utzita. Salbuespen garrantzitsuena da Egoeraren Balantzean Saneamendurako Gainkargu Bereziak egindako kobrantzen kontabilizazioari aipamen egiten diona. Higiezinuari txertatutako aktiboak finantzatu dituen gainkargua 39.110 milioi pezetako zenbatekoarekin erregistratu behar zatekeen, hainbat urtealditan banatu beharreko sarrera modura, eta ez, Berezko Fondo modura.

Epaitegiak, legezko alderdiei eta Partzuergoaren Kontuei buruzko iritzia emateaz gain, txostenean barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen ere barne hartu ditu. Atal honetan, besteak beste, honako alderdi hauek dira azpimarragarrienak:

- Partzuergoak Txostena idatzi den datan gauzatzeko dauden inbertsioei aurre egiteko 2005eko urtealdira arte dituen finantzaketa beharrianak -33.477 milioi pezeta-, eskuratzeko dauden dirulaguntzak eta 01.12.31n diruzaintza gerakina gogoan hartuta finkatu dira 22.559 milioi pezetan. Aurrezki garbien eta egindako aurreikuspenen bilakaera historikoak bide ematen dio Epaitegiari ondorentzeko, iada 1992ko urtealdiaren fiskalizazioan adierazi zuen moduan, desoreka sortuko dela baliabideen eta beharrianen artean, eta honenbestez, finantzaketa dirulaguntza berriak eskuratuta edo zorpidetza bidea erabilia bideratu beharko duela.
- Epaitegiak Partzuergoari gomendatzen dio aurrezkiak gastu arruntaren egituran aurki ditzala, bereziki langileen gastuetan, bertako plantilaren ordainsariak Administrazioaren gainerakoekin berdinduz. Ildo honi jarraiki, Partzuergoaren 1992, 1994, 1998 eta 2001eko batez besteko ordainsariak mailaren arabera xehekatu eta gero, ondorendu dugu ordainsari horiek nasaitasunez gaintzen dituztela Bilboko udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordainsariak.
- Partzuergoaren Lehendakari karguari dagokionez, Epaitegiak adierazi du Estatutuen 15. art. urratu dela, izan ere, kargu hori bete baita ordainsaririk eta bete-beteko dedikaziorik gabe, azken ezaugarri hau betekizun modura agertzen delarik aipatutako artikuluan.
- Atal honetan Epaitegiak Argentina eta Uruguayan gauzatutako eragiketen emaitza ekonomikoak aztertu ditu eta ondorendu du, Partzuergoak Batzar Nagusian hartutako erabakiaren oinarritzea urratu duela, bertan esan baitzen Partzuergoak zerbitzu publikoen sozietate esleipen hartzaileetan izango zuen partaidetzak ez zuela kapital ekarpenik eragingo eta gainera, eragiketa horien emaitza negatiboa izan daiteke, gogoan

25/03/a

hartuz gero, inbertsioen truke tipoak eragindako balio galera, dauden kobragarritasun arazoak eta Latinoamerikan egoerak bizi duen arian-ariango gainbehera.